

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****2019. urterako ordenantza fiskalen aldaketaren behin-behineko onespena**

Bermeoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2018ko urriaren 23an egindako bileran, hasiera batez onartu du 2019. urterako Ordenantza Fiskalaren aldaketak.

Abenduaren 16ko 09/2005 Foru-Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzkoak bere 16. artikulua betetzeko, aipaturiko espedientea jendeari erakusten zaizkio, ondorengo arau hauen arabera.

- a) Erakutsita dagoen lekua: Ekonomia Sailean.
- b) Espedienteak aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 egun, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.
- c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: 09/2005 Foru-Arauaren 17. artikuluan aipatzen diren interesatuek.
- d) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Berh@z bulegoa).
- e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Osoko Bilkura.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazioa edo oharpenik jaso gabe, ordenantzan aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bermeon, 2018ko urriaren 24an.— Alkatea